

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA
Pertsonen Kudeaketa

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN
Gestión de Personas

Iragarkia

Anuncio

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022-12-20an honako erabaki hauek hartu zituen:

La Junta de Gobierno Local, con fecha 20-12-2022, ha adoptado los siguientes acuerdos:

“Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 17an, 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuen. Bertan, Donostiako Udaleko funtzionarioen plantillan bete gabe zeuden plaza batzuk jaso ziren. Akordio hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 25ean, 98. zenbakian.

“La Junta de Gobierno Local aprobó el 17 de mayo de 2022 la Oferta de Empleo Público del año 2022, que incluía diversas plazas vacantes de la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián. Dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 25 de mayo de 2022, núm. 98.

Bertan sartutako plazzen artean, A1 azpitaldeko plaza hutsak sartzen dira, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bigarren artikuluan sartutakoak.

Entre las plazas comprometidas, se incluyen las plazas vacantes del Subgrupo A1 incluidas por el artículo 2 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

Hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak egin dira. Hautaketa prozesua lehiaketa-oposizioa bidezkoa izango da.

Se han elaborado las bases que regularán el proceso selectivo por el sistema selectivo de concurso-oposición.

Oinarriak prestatzerakoan, kontuan hartu da gaiari buruzko erregulazio berezia; zehazki, Donostiako Udalaren zerbitzura karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak, eta honako arau hauek xedatutakoak: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (TREBEP); 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, osagarri gisa aplikatzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidego eta eskalena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.

En la elaboración de las bases se ha tenido en cuenta la regulación especial en la materia; en concreto, las bases generales que vienen regulando los procesos selectivos para el ingreso como funcionario o funcionaria de carrera al servicio del Ayuntamiento de San Sebastián y por lo dispuesto en las siguientes normas: Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP); Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local; Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria a la Administración Local; Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi; Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Langileen ordezkariekin egonkotze-prozesuak diseinatze-ko irizpide orokorrak negoziatu ondoren, oinarrien testua irizpen honi erantsi zaio onar daitezzen.

Tras la negociación con la representación del personal de los criterios generales para el diseño de los procesos de estabilización, el texto de las bases se acompaña al presente dictamen para su aprobación.

Horregatik guztiagatik, Pertsonak Kudeatzeko Zuzendariak hala proposatuta Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 21ean emandako, eta, ondoren, 2021eko maiatzaren 4an eta 2022ko urriaren 18an aldatutako eskumenak erabiliz honako erabaki hauek hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

En su virtud, el Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas, en ejercicio de las competencias atribuidas por la Junta de Gobierno Local el 21 de junio de 2019 y, posteriormente, modificadas el 4 de mayo de 2021 y el 18 de octubre de 2022 el concejal delegado de Hacienda y Finanzas, y a propuesta de la Directora de Gestión de Personas, propone a la Junta de Gobierno los siguientes

ERABAKIAK

Lehenengoa.- Egonkortze-prozesuetan dauden Donostiako Udaleko A1 azpitaldeko plazak lehiaketa-oposizioaren bidez betetzeko deialdia onartzea.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onartzea.

Hirugarrena.- Deialdia eta hura arautzeko oinarriak dagoen euskarri ofizialetan argitaratzea.”

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta BI HILABETE baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Beraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta beraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko abenduaren 20a.-Maribel Iñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria.

(8565)

EGONKORTZEKO PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRIAK, DONOSTIAKO UDALAREN A1 AZPITALDEKO PLAZAK LEHIAKETA-OPOSIZIOAREN BIDEZ BETETZEKOAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da Donostiako Udalaren plantillako A1 azpitaldeko plazetan karrerako funtzionario izateko egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzea.

Plaza guztiak txanda librean eta sarbide orokorreko modalitatean eskaintzen dira, eta lehiaketa-oposizioa izango da hautaketa-sistema, egonkortzeko prozesuak direnez gero.

Deialdia enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko

ACUERDOS

Primero.- Aprobar la convocatoria para la provisión mediante el sistema de concurso-oposición de plazas del subgrupo A1 del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en procesos de estabilización.

Segundo.- Aprobar las bases que regularán el proceso selectivo.

Tercero.- Publicar la convocatoria y las bases que la regulan en los medios oficiales que correspondan.”

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 20 de diciembre de 2022.-La directora de Gestión de Personas, Maribel Iñiguez Azurmendi.

(8565)

BASES DE LA CONVOCATORIA DEL PROCESO DE ESTABILIZACIÓN PARA LA PROVISIÓN MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO-OPOSICIÓN DE PLAZAS DEL SUBGRUPO A1 DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Primera.-Objeto de la convocatoria.

Es objeto de las presentes bases regular los procesos selectivos de estabilización para el acceso a la condición de funcionario/a de carrera de plazas del subgrupo A1 de la plantilla del Ayuntamiento de San Sebastián.

Todas las plazas se ofertan por el turno libre y por la modalidad de acceso general, y mediante el sistema selectivo de concurso-oposición por tratarse de procesos excepcionales de estabilización.

La convocatoria deriva de lo establecido en el artículo 2 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes

20/2021 Legearen bigarren artikuluan ezarritakoaren ondorio da.

Deialdi honen xede diren plazak Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 17an onetsi zuen 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkio (GAO, 98. zenbakia, 2022ko maiatzaren 25ekoa) eta A1 azpitaldean sartuta daude.

Enplegu Publikoaren Eskaintzako plazak aztertu ondoren ondorioztatu da kasu batzuetan plazak, jarduketa-eremua kontuan hartuta, espezialitatearen arabera taldekatu behar direla. Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariaren 2022ko abenduaren 12ko ebazpenaren bidez erabaki da espezialitatearen arabera sailkatzea.

Oinarri hauek plaza eta, hala badagokio, espezialitate hauen deialdia arautzen dute:

- Arkitektoa
- Albaitaria
- Administrazio Orokorreko teknikaria
- Ingurumeneko goi-mailako teknikaria
- Ekonomia-erloko goi-mailako teknikaria
- Goi-mailako teknikaria (mugikortasun espezialitatea)

Plaza bakoitzari buruzko informazio orokorra 1. eranskinean jasotako plazen taulan dago, eta berezitasunak plaza bakoitzerako prestatu den eranskinean daude.

Deialdi honen barruan, plaza bakoitzak eta, hala badagokio, plaza eta espezialitate bakoitzak hautaketa-prozesu independente bat izango du.

Deialdia, oinarri arautzaileekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpen zehatza argitaratuko da. Laburpen horretan, informazio hau jasoko da: deialdia egin duen korporazioa, hautaketa-prozesuaren izena, deitutako plazen kopurua, eta oinarriak eta deialdia argitaratu diren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren data eta zenbakia.

Bigarrena.- Aplikatzekoa den araudia.

Hautaketa-prozesuak oinarri hauek ezarritakoak eta honako arau hauek xedatutakoak izango ditu oinarri: 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriena; 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Toki Administrazioan modu osagarrian aplikatzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoarena; 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Auto-

para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

Las plazas que son objeto de la presente convocatoria corresponden a la Oferta de Empleo Público del año 2022, aprobada por la Junta de Gobierno con fecha 17 de mayo de 2022 (BOG, N.º 98, de fecha 25 de mayo de 2022) y se encuentran encuadradas en el Subgrupo A1.

Analizadas las plazas recogidas en la Oferta de Empleo Público se ha observado la necesidad en algunos casos de determinar su agrupación por especialidades teniendo en cuenta el ámbito de actuación. La agrupación por especialidades se ha acordado mediante Resolución del concejal-delegado de Hacienda y Finanzas, de fecha 12 de diciembre de 2022.

Las presentes bases regulan la convocatoria de las siguientes plazas y, en su caso, especialidades:

- Arquitecto/a.
- Veterinario/a.
- Técnico/a de Administración General.
- Técnico/a Superior de Medio Ambiente.
- Técnico/a Superior Rama Económica.
- Técnico/a Superior (especialidad movilidad).

La información general de cada plaza se encuentra en la tabla de plazas recogida en el Anexo 1, y sus especificidades constan en el anexo que se ha elaborado para cada una de ellas.

Dentro de la presente convocatoria cada plaza y, en su caso, plaza y especialidad, será objeto de un proceso selectivo independiente.

La convocatoria se publicará, junto con las bases reguladoras, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Además, se publicará en el Boletín Oficial del Estado un extracto detallado de la convocatoria que contendrá la siguiente información: corporación convocante, denominación del proceso selectivo, número de plazas convocadas y fecha y número del Boletín Oficial de Gipuzkoa en el que han publicado las bases y la convocatoria.

Segunda.- Normativa aplicable.

El proceso selectivo se regirá por lo establecido en estas Bases y por lo dispuesto en las siguientes normas: Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP); Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública; Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca; Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local; Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria a la Administración Local; Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Admi-

nomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoena eta eskalena; 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarriakoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko legea; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

nistración de la Comunidad Autónoma de Euskadi; Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera; Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi; Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de Mujeres y Hombres; Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres; Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de carácter personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Hirugarrena. – Izangaiek bete beharreko baldintzak.

Tercera.–Requisitos de los/as aspirantes.

3.1. Izangaiek parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute, eta honako baldintza hauek bete, eskainitako plazetako bat lortu ahal izateko.

3.1. Las personas aspirantes deberán presentar la solicitud de participación y reunir los siguientes requisitos para poder obtener una de las plazas ofertadas.

3.1.1.- Espainiako nazionalitatea izatea.

3.1.1.- Tener la nacionalidad española.

Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute, espainiarrek enplegu publikoak funtzionario gisa eskuratzeko dituzten baldintza berberetan:

También podrán participar para acceder, como personal funcionario, en igualdad de condiciones que los españoles a los empleos públicos:

a) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak.

a) Los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea.

b) Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontideak, haien nazionalitatea edozein dela ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude; eta haien ondorengoak eta ezkontidearenak, zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beharakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, haien mendekoak badira.

b) El cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, cualquiera que sea su nacionalidad y siempre que no estén separados de derecho; así como sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad dependientes.

c) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa denean.

c) Las personas incluidas en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España en los que sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

3.1.2.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, 16 urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehienezko adina gainditua ez izatea.

3.1.2.- Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa, en la fecha en la que finalice el plazo de presentación de instancias.

3.1.3.- Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

3.1.3.- Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

Baldintza hori betetzen dela hautaketa-prozesua gainditu ondoren eta karrerako funtzionario izendatu aurretik egiztatuko da, mediku-azterketa baten bidez.

El cumplimiento de este requisito se acreditará una vez superado el proceso selectivo y antes del nombramiento como funcionario/a de carrera mediante la realización de un reconocimiento médico.

3.1.4.- Diziplina-espedita bidez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoren zerbitzutik berezita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, bereziki edo

3.1.4.- No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos

desgaitutako funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartze-ko.

públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario en el que hubiese sido separado/a o inhabilitado/a.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziiplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik ez izatea.

En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente, ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

3.1.5.- Oinarri hauetako plazan taulan (1. eranskina) adierazitako titulazioa izatea.

3.1.5.- Estar en posesión de la titulación exigida, que será la que se indica en la tabla de plazas (Anexo 1) de las presentes bases.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.

En el caso de las titulaciones obtenidas en el extranjero se deberá estar en posesión de la correspondiente convalidación o de la credencial que acredite, en su caso, la homologación.

Azken baldintza hori ez zaie aplikatuko Europako Erkidegoko Zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen eremuan kualifikazio profesionala aitortua duten izangaiei. Izangaiei dagokie aitortpen hori egiaztatzea.

Este último requisito no será de aplicación a los/as aspirantes que hubieran obtenido el reconocimiento de su cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario. Corresponde a los/as aspirantes acreditar dicho reconocimiento.

3.1.6.- Donostiako Udaleko karrerako funtzionario ez izatea, lortu nahi den plaza berean.

3.1.6.- No tener la condición de personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de San Sebastián en la misma plaza a la que se pretende optar.

3.1.7.- Dagokion eranskinean plaza bakoitza eskuratzeko eskatzen den beste edozein baldintza. Eranskin horietan ezarriko dira deialdiko lanpostuei esleitutako betekizun espezifikoak.

3.1.7.- Cualesquiera otros requisitos que, en su caso, se exijan para acceder a cada plaza en su anexo correspondiente. En dichos anexos se establecerán los requisitos específicos que están asignados a los puestos de trabajo correspondientes a las plazas convocadas.

3.2.- Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira aurreko paragrafoetan aipatzen diren baldintzak eta, halakorik bada, dagokion eranskinean plaza bakoitzerako ezartzen direnak, 10.4 oinarrian euskarari buruz ezarritakoa izan ezik. Hautaketa-prozesu guztian bete beharko dira baldintza horiek guztiak, karrerako funtzionario gisa plazaz jabetu arte.

3.2.- Los requisitos citados en los apartados anteriores y los que en su caso se establezcan para cada plaza en el correspondiente anexo, deberán poseerse el día en que finalice el plazo de presentación de solicitudes de participación, salvo lo establecido en la base 10.4 en lo que respecta al euskera. Asimismo, deberán poseerse todos ellos durante el procedimiento de selección hasta la toma de posesión como funcionario/a de carrera.

Parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua amaitzean entregatuko dute behin betiko zerrendan hautatuak izan direnek, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera. Ez da dokumentu horiek aurkeztu beharrik izango, Donostiako Udalean zerbitzuak eman dituztenen espediente pertsonalean badaude.

La documentación acreditativa de los requisitos de participación se entregará a la finalización del proceso selectivo por quienes figuren como seleccionados/as en la relación definitiva, de conformidad con lo previsto en las presentes bases. No será preciso aportar esos documentos cuando obren en el Expediente Personal de quienes han prestado servicios en el Ayuntamiento de San Sebastián.

Laugarrena. – Parte hartzeko eskabideak

Cuarta.–Solicitudes de participación.

4.1. Donostiako Udalaren Administrazio Elektronikoaren Erregelamenduak (2008ko ekainaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 119. zenbakia), 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkurak onetsitako aldaketaren ondoren (2022ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 233 zk.), 28.4 artikuluan adierazten du hautaketa-prozesu bakoitza-

4.1. El Reglamento de Administración Electrónica del Ayuntamiento de San Sebastián (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 119, de 23 de Junio de 2008) tras la modificación aprobada por el Pleno de fecha 29 de septiembre de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 233 de 12 de diciembre de 2022), en su artículo 28.4 señala la posibilidad de poder estable-

ren deialdian ezarri ahal izango dela Donostiako Udalarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko betebeharra.

Horren arabera, hautaketa-prozesuaren deialdi honetan, izangaiek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte prozesuarekin lotutako jarduketa eta izapide guztiak, eta, beraz, behartuta daude udal-administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera.

Adierazitako izapideak egiteko, Donostiako Udalak onartutako eta bere egoitza elektronikoa argitaratutako identifikazio- eta sinadura-sistemak erabili beharko dituzte izangaiek.

4.2. Izangaiek eskabide bat aurkeztu behar dute parte hartu nahi duten plaza edo, hala badagokio, plaza eta espezialitate bakoitzerako.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidearen aurkezpenak bi fase izango ditu, eta Udalaren www.donostia.eus webgunearen bidez aurkeztu behar da nahitaez, "Lan-eskaintza" atalaren barruan, dagokion deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira). Hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira bi faseak adierazitako moduan eta bitartekoaren bidez egiten ez dituzten izangaiek.

4.3. Lehenengo fasean, interesdunak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du, eta, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikularekin bat etorritik, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du. Adierazpen horretan adieraziko du betetzen dituela parte hartzeko baldintza guztiak, egiazkoak direla deialdian adierazitako betekizunak betetzeari eta alegatzen dituen merezimenduei buruzko datuak eta konpromisoa hartzen duela adierazitako datu guztiak dokumentu bidez egiaztatzeko. Erantzukizunpeko adierazpena 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

4.4. Bigarren fasean, lortu nahi duen plazari dagokion eranskinaren arabera baloratzen diren merezimenduak alegatu eta egiaztatu beharko ditu interesdunak, eta, une horretan, merezimendu horiek egiaztatzen dituen ziurtagiria, diploma edo titulua erantsi beharko du.

4.4.1. Merezimenduak alegatzeko, merezimenduen autobaremoa bete beharko da, eta baloratu beharreko merezimendurik ez duela uste duenak ere aurkeztu beharko du hori.

Era berean, fase honetan, euskararen jakite-maila egiaztatzeko probak egin nahi dituzten ala ez adierazi beharko dute izangaiek, eta zein hizkuntza-eskakizunetara aurkeztuko diren ere adierazi beharko dute. Bestalde, aurretik hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatua badute, hori ere adieraziko dute.

4.4.2. Merezimenduak egiaztatzeko, alegatutako merezimenduak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko

erren la convocatoria de cada proceso selectivo, la obligatoriedad de relacionarse con el Ayuntamiento de San Sebastián a través de medios electrónicos.

De conformidad con ello, en esta convocatoria de proceso selectivo, las personas aspirantes deberán realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el mismo, por lo que quedan obligadas a relacionarse con la Administración municipal a través de medios electrónicos.

Para realizar los trámites indicados las personas aspirantes deberán utilizar los sistemas de identificación y firma admitidos por el Ayuntamiento de San Sebastián y publicados en su sede electrónica.

4.2. Las personas aspirantes deben presentar una solicitud para cada una de las plazas o, en su caso, plaza y especialidad, en la que deseen participar.

La presentación de la solicitud de participación en el proceso selectivo constará de dos fases y se debe presentar obligatoriamente mediante la página web del Ayuntamiento www.donostia.eus dentro del apartado "Oferta de Empleo" en la reseña de la correspondiente convocatoria (requiere identificación y firma electrónica). Quedarán excluidas del proceso selectivo las personas aspirantes que no realicen ambas fases en la forma y por el medio señalado.

4.3. En la primera fase la persona interesada solicitará participar en el proceso selectivo y realizará, de conformidad con el artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, una declaración responsable señalando que cumple todos los requisitos de participación, que son ciertos los datos declarados sobre el cumplimiento de los requisitos y sobre los méritos que alegará en la convocatoria, y que se compromete a acreditar documentalmente todos los datos declarados. La declaración responsable se efectuará de conformidad con lo establecido en el artículo 69 de la citada Ley 39/2015.

4.4. En la segunda fase la persona interesada deberá alegar y acreditar los méritos que en virtud del anexo correspondiente a la plaza a la que opta sean objeto de valoración, adjuntando en ese momento certificado, diploma o título acreditativo de dichos méritos.

4.4.1. La alegación de los méritos consistirá en la cumplimentación del autobaremo de méritos que deberá ser presentado, incluso, por quien considere que no tiene méritos objeto de valoración.

Asimismo, en esta fase los/as aspirantes deberán indicar si desean o no realizar las pruebas para la acreditación de sus conocimientos de euskera, debiendo señalar el perfil o los perfiles lingüísticos a cuyas pruebas van a presentarse. También indicarán, en su caso, que perfil lingüístico tienen acreditado con anterioridad.

4.4.2. La acreditación de los méritos consistirá en la aportación por la persona aspirante de la documentación justificativa

ditu izangaiak, salbu eta Udalak bere bide propioen bidez horien berri izan badezake.

Eskabideak aurkezteko epea irekitzean, Udalak adieraziko du zer datu edo dokumentu bilduko dituen zuzenean, izangaiek aurkeztu beharrik izan gabe. Kontsultak kasu guztietan egingo dira, interesdunak horren kontra dagoela arrazoiak emanez adierazi ezean; kasu horretan, hark aurkeztu beharko ditu kontra egin dion kontsultari buruzko dokumentuak.

Alegatutako merezimenduaren edo euskararen jakite-mailaren egiaztatzea Donostiako Udalean zerbitzuak eman dituztenen espediente pertsonalean jasota badago, ez da merezimenduen edo euskararen jakite-mailaren frogagiririk aurkeztu beharko, baina ezinbestekoa izango da merezimenduak alegatzea.

Era berean, ez da beharrezkoa izango merezimendu bat egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, baldin eta Donostiako Udalak bitarteko elektronikoen bidez egin baditzake izangaiei datuei eta dokumentuei buruzko egiaztapenak eta kontsultak, datu eta dokumentu horiek Administrazioak egin edo haren esku daudela eta. Hala ere, kasu horretan ere ezinbestekoa izango da interesdunak merezimendua alegatzea.

Euskararen jakite-maila egiaztatzeari dagokionez, alegatu egin beharko da, baina izangaiari ez zaio eskatuko dokumentu bidezko egiaztapenik, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago. Era berean, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jada agertzen bada. Hala ere, titulazioa, ziurtagiria edo salbuespena erregistro horretan agertzen ez bada, aurkeztu beharko da egiaztatzea.

Interesdunek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatu ahal izango dituzte beren datuak, esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

4.5. Izangaiak eskabidean adierazitako datuei lotuta gertuko dira, eta, aurkeztu ondoren, bitarteko elektronikoen bidez bakarrik eskatu ahal izango dute datuok aldatzeko, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

4.6. Izangaiek autobaremoan alegatu beharko dute Donostiako Udalean emandako zerbitzuei dagokien esperientzia. Autobaremoa ofizioz zenbatuko da, eta ez inolako dokumentaziorik aurkeztu beharrik izango.

cativa de los méritos alegados, excepto en aquellos casos en los que el Ayuntamiento pueda tener constancia de los mismos mediante sus propios medios.

El Ayuntamiento indicará al abrir el plazo de presentación de solicitudes qué datos o documentos serán recabados directamente, sin necesidad de ser aportados por las personas aspirantes. Las consultas se realizarán en todos los casos salvo que la persona interesada haga constar su oposición motivada, en cuyo caso deberá aportar los documentos referidos a la consulta a la que se opone.

No se deberá aportar justificación documental de los méritos, ni del nivel de conocimientos de euskera, cuando el documento acreditativo del mérito alegado o de los conocimientos de euskera consten en el expediente personal de quienes han prestado servicios en el Ayuntamiento de San Sebastián, pero será imprescindible la alegación de los méritos.

Tampoco será necesario aportar la documentación acreditativa de un mérito en los casos en los que el Ayuntamiento de San Sebastián pueda realizar por medios electrónicos las comprobaciones y consultas necesarias de los datos y documentos de las personas aspirantes que hayan sido elaborados u obren en poder de la Administración. No obstante, en este caso también será imprescindible que la persona interesada haya alegado el mérito.

En cuanto a la acreditación del nivel de conocimientos de euskera, se deberá alegar pero no se exigirá a la persona aspirante la acreditación documental cuando conste en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera. Asimismo, no será preciso aportar la certificación académica correspondiente en el caso de las exenciones de acreditación contempladas en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, cuando dicha exención figure ya en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera. No obstante, deberá aportarse el documento justificativo en el caso de que la titulación, la certificación o la exención no figure en el citado Registro.

Las personas interesadas pueden consultar sus datos en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera a través del siguiente enlace: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

4.5. Los/las aspirantes quedan vinculados/as a los datos consignados en la solicitud, y una vez presentada sólo podrán instar su modificación por medios electrónicos dentro del plazo establecido para la presentación de solicitudes.

4.6. La experiencia por los servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián deberá ser alegada en el autobaremo por las personas aspirantes y será computada de oficio sin necesidad de aportar documentación alguna.

Gainerako administrazio publikoetan emandako zerbitzuak autobaremoan alegatu beharko dira, eta kasuan kasuko administrazioko organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira. Ziurtagirian, lan egindako aldiak jaso beharko dira, honako hauek adierazita: zerbitzu-aldien hasiera eta amaiera, emandako zerbitzuen lanaldi-araubidea eta lanaldi-murrizketaren ehunekoa, hala badagokio; lotura-araubidea, taldea, azpitaldea, eskala, azpieskala eta klasea, plazari lotutako lanpostuaren izena, eta lanpostuaren eginkizunak, identifikazioa behar bezain argia ez bada.

4.7. Titulazio akademiko ofizialak bitarteko elektronikoen bidez egiaztatuko ditu Donostiako Udalak.

Hala ere, atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek homologazioaren edo baliozkotzearen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Halaber, unibertsitate-titulu propioen kasuan, frogagiriak aurkeztu beharko dira.

4.8. Donostiako Udalaren lan-poltsetan egotea autobaremoan alegatu behar dute izangaiek. Merezimendu hau ofizioz hartuko da kontuan, eta izangaiek ez dute dokumentaziorik aurkeztu beharrik izango.

4.9. Atzerriko hizkuntzen (ingelesa, frantsesa eta alemana) balorazioari dagokionez, abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratu. Errege-dekretu horrek oinarritzko izaerarekin ezartzen ditu zenbait ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretukoentekoko baliozketak.

Hizkuntzak jakiteari buruzko merezimenduaren alegazioarekin batera, hori justifikatzen duen agiria aurkeztuko da.

4.10. IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak baloratzeko alegazioa autobaremoan egin beharko da.

Donostiako Udalak bitarteko elektronikoen bidez egiaztatuko ditu IT Txartelaren ziurtagiriak, eta, beraz, ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

4.11. Bigarren fasea amaitu ondoren, izangai bakoitzak mezu elektronikoa jasoko du, autobaremazioaren araberako lortu duen puntuazioaren berri emateko. Puntuazio horiek izangaiek alegatutako merezimenduei bakarrik dagozkie, eta ez dira Donostiako Udalak egiaztatutakoak.

4.12. Eskabideak aurkezteko epea hoguei egun balioudunak izango da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Laburpenean, lehenago deialdia eta oinarri hauek argitaratu diren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren

Los servicios prestados en el resto de administraciones públicas deberán alegarse en el autobaremo y se deberá acreditar mediante certificado del órgano competente de la administración de la que se trate. En el certificado deberán constar los períodos trabajados mediante la indicación de la fecha de inicio y fin de los períodos de servicios, el régimen de jornada en el que se han prestado y el porcentaje de la reducción de jornada, en su caso; el régimen de vinculación, el grupo, subgrupo, escala, subescala y clase, la denominación del puesto de trabajo asociado a la plaza, y las funciones del puesto de trabajo si su identificación no fuese suficientemente clara.

4.7. Las titulaciones académicas oficiales serán comprobadas por el Ayuntamiento de San Sebastián mediante medios electrónicos.

No obstante, los/as aspirantes con titulaciones obtenidas en el extranjero deberán aportar la documentación acreditativa de su homologación o convalidación.

También, se deberá aportar la documentación justificativa en el caso de los títulos universitarios propios.

4.8. La pertenencia a bolsas de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián, se debe alegar en el autobaremo por las personas aspirantes y será computada de oficio sin necesidad de aportar documentación alguna.

4.9. En cuanto a la valoración de los idiomas extranjeros (inglés, francés y alemán), únicamente serán valorados los títulos y certificados que, para cada nivel e idioma, se recogen en el Real Decreto 1041/2017, de 22 de diciembre, que, con carácter básico, establece las equivalencias entre las enseñanzas de idiomas de régimen especial reguladas en diversos planes de estudio y las del Real Decreto.

Junto con la alegación del mérito referido al conocimiento de idiomas se aportará el documento justificativo del mismo.

4.10. Para la valoración de los conocimientos informáticos acreditados mediante el sistema de certificaciones IT Txartela se deberá realizar la alegación en el autobaremo.

La posesión de las certificaciones IT Txartela será comprobada por el Ayuntamiento de San Sebastián mediante medios electrónicos, por lo que no se deberá aportar documentación alguna.

4.11. Tras finalizar la segunda fase, cada persona aspirante recibirá un correo electrónico con sus respectivas puntuaciones según su propia autobaremación. Dichas puntuaciones se corresponderán exclusivamente con los méritos alegados por los aspirantes, sin que hayan sido verificados los mismos por el Ayuntamiento de San Sebastián.

4.12. El plazo de presentación de solicitudes será de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio del extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial del Estado. En el extracto figurará la oportuna referencia al número y fecha del Boletín Oficial del Gipuz-

zenbakia eta data aipatuko dira.

koa en el que con anterioridad se haya publicado la convocatoria y las presentes bases.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, izangaia ez da onartuko.

La no presentación de la solicitud en tiempo y forma supondrá la inadmisión del/de la aspirante al proceso selectivo.

4.13. Datu pertsonalak babestea

Izangaiek hautaketa-prozesu batean parte hartzeko eskabide-inprimakia aurkezteak berekin dakar baimena ematea aldizkari ofizialetan, iragarki-tauletan, Udalaren webgunean eta hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak aplikatzeko erabiltzen den beste edozein baliabidetan egiten diren argitalpenetan identifikatzeko. Halaber, berekin dakar baimena ematea Donostiako Udalak datu pertsonalak erabil ditzan hautaketa-prozesu zehatzetik eratorritako lan-poltsak kudeatzeko.

4.13. Protección de datos de carácter personal.

La presentación por los/as aspirantes del formulario de solicitud para participar en un proceso selectivo implica su autorización para que se les identifique en las publicaciones procedentes que se lleven a cabo en los boletines oficiales, tabloneros de anuncios, en la página web del Ayuntamiento y en cualquier otro medio que se utilice en aplicación de las bases reguladoras del proceso selectivo. Asimismo, supone su consentimiento para que el Ayuntamiento de San Sebastián trate los datos personales para la gestión de las bolsas de trabajo que deriven del concreto proceso selectivo.

Horrez gain, hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin dakar izangaiek hautaketa-prozeduran aurkeztu behar duten dokumentazioa tratatzea.

La participación en el proceso selectivo también implica el tratamiento de la documentación que han de aportar los/as aspirantes en el curso del procedimiento de selección.

Izangaiek emandako datu pertsonalen tratamendua Donostiako Udaleko Tratamendu Jardueren Erregistroan aurreikusten den "Hautaketa-prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko da. Jarduera hori Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen, 2018-10-16an egindako bileran. Tratamendu Jardueren Erregistroa eskuragarri dago Donostiako Udalaren Gardentasun Atarian (www.donostia.eus).

El tratamiento de los datos de carácter personal facilitados por las personas aspirantes serán incorporados a la actividad de tratamiento denominada "Procesos de Selección" que se prevé en el Registro de Actividades de Tratamiento como Responsable de Tratamiento del Ayuntamiento de San Sebastián, aprobado por acuerdo de la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 16/10/2018. El Registro de Actividades de Tratamiento se encuentra accesible en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento de San Sebastián (www.donostia.eus).

Tratamenduaren organo arduraduna Donostiako Udala da.

El órgano responsable del tratamiento es el Ayuntamiento de San Sebastián.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak Udalinfo zerbitzuaren bulegoetan edo www.donostia.eus egoitza elektronikoa erabil daitezke.

Los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición se pueden ejercitar en las oficinas del servicio Udalinfo o a través de la sede electrónica www.donostia.eus

Bosgarrena. – Kalifikazio Epaimahaia.

Quinta.– Tribunal calificador.

5.1. Izendapena.

5.1. Nombramiento.

Deialdi bakoitzean, udal-organo eskudunak Kalifikazio Epaimahaiko kideak izendatuko ditu. Epaimahai hori arduratuko da hautaketa-prozesua garatzeaz, hautaprobak kalifikatzeaz eta lehiaketako merezimenduak baloratzeaz.

En cada convocatoria el órgano municipal competente nombrará a los/as componentes del Tribunal Calificador, que se encargará del desarrollo del proceso selectivo, de la calificación de las pruebas selectivas y de la valoración de los méritos del concurso.

Izendapenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda behin-behingoarekin batera.

Los nombramientos se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento, conjuntamente con la relación provisional de personas admitidas y excluidas.

Epaimahaiaren osaerak orekatua izan behar du, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean, salbu eta halakorik ez dagokiol behar bezala justifikatzen bada. Ordezkaritza orekatutzat joko da, lau kide baino gehiago dituzten organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.2.- Osaera.

Kalifikazio-epaimahai bakoitzean lehendakari bat, idazkari bat, gutxienez lau kide eta horien ordezkariak egongo dira. Guztiak izango dira deialdiko plaza eskuratzeko eskatzen den titulazio-maila bera edo handiagoa duten karre-rako funtzionarioak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak pertsona bat izendatuko du deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako balorazio-batzordean parte hartzeko.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari espezialistek hitza izango dute, baina botorik ez, eta epaimahaiari beren espezialitate teknikoetan laguntzea izango dute eginkizun bakar.

5.3.- Abstentzia eta errekusazioa.

Epaimahaiko kideek eta aholkulari espezialistek ezingo dute jardun, edo interesdunek errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio-arrazoiren bat baldin badago, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan izangaiak hautaketa-probetarako prestatzeko lanak egin badituzte.

Epaimahaia eratzeko saioan, lehendakariak adierazpen formala egingo du, adierazitako egoera horietako bakar batean ere ez dagoela adierazteko, eta, jarraian, horri buruzko adierazpen formala egiteko eskatuko die epaimahaiko gainerako kideei. Eratze-saioan parte hartu ez duten Epaimahaiko kideek, bai eta aholkulari espezialistek ere, parte hartzen duten lehen saioan egingo dute adierazpen formal hori.

5.4.- Jarduteko arauak.

Epaimahaiak, oinarrietan xedatutakoa betetzeari utzi gabe, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.-18. artikuluetan ezarritako arauen arabera jardungo du. Epaimahaia alde zuzenetik bilduko da, idazkariak eginiko deialdiari jarraiki, lehendakariaren aginduz. Balioz eratu izan dadin saioak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartze aldera, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo, hala badagokio, haien ordezkariak eta, gutxienez, kideen erdiak bertan

- 10.4.- No obstante, estarán exentos de realizar la prueba de euskera quienes hayan obtenido previamente el perfil lingüístico correspondiente a las plazas convocadas, o algún título o certificado convalidado con dicho perfil, así como quienes tengan el reconocimiento de estudios oficiales realizados en euskera que supongan la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, según la normativa vigente en cada momento.
- Hizkuntza-eskakizuna edo baliozkotutako ziurtagiriak edo tituluak lortu diren datak edo, hala badagokio, salbuespena dakarten ikasketen aitortpena lortu den datak euskarako lehen ariketa egiteko eguna baino lehenagokoa izan behar du.
- La fecha de obtención del perfil lingüístico o de los certificados o títulos convalidados o, en su caso, la fecha de obtención reconocimiento de estudios que supongan la exención debe ser anterior a la fecha de celebración del primer ejercicio de euskera.
- Euskara-proba egitetik salbuetsita daudenek hautaketa-prozesuan edo hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabide-orrian alegatu behar dute, euskarako lehen ariketa egiteko jarritako eguna baino lehen, betiere.
- Quienes estén exentos de realizar la prueba de euskera deberán alegarlo en el formulario de solicitud de participación en el proceso selectivo o durante el proceso selectivo, con el límite máximo del día fijado como fecha de celebración del primer ejercicio de euskera.
- Deialdi batean euskara-proba egin beharrik ez bada, Epaimahai Kalifikatzaileak zazpi egun balioduneko epea irekiko du lehiaketa-faseko behin-behineko kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko (9.6 oinarria). Epe horren azken egunak euskararen lehenengo ariketa egiten den egunaren gainean aurreko paragrafoetan adierazi diren ondorio berberak izango ditu.
- En el supuesto de que en una convocatoria no sea precisa la realización de la prueba de euskera, el Tribunal Calificador abrirá un plazo de siete días hábiles que coincidirá en el tiempo con el plazo para presentar reclamaciones contra las calificaciones provisionales de la fase de concurso (base 9.6). El último día de este plazo tendrá los mismos efectos que se otorgan en los párrafos anteriores al día de celebración del primer ejercicio de euskera.
- 4.4.2 oinarrian ezarritako kasuetan ez dago euskararen jakite-maila egiaztatze dokumenturik aurkeztu beharrik.
- No será preciso aportar un documento justificativo del nivel de conocimientos de euskera en los casos establecidos en la base 4.4.2.
- 10.5.- Euskara-probaren behin-behineko emaitzak argitaratu egingo dira, eta baita behin-behineko zerrenda bat ere. Zerrenda horretan, hizkuntza-eskakizun bat badutela erakusteko dokumentazioa aurkeztu eta, beraz, proba egin ez duten izangaiek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak jasoko dira.
- 10.5.- Serán objeto de publicación los resultados provisionales de la prueba de euskera, así como un listado provisional en el que constarán los perfiles lingüísticos acreditados por los/as aspirantes que no hayan realizado la prueba por haber alegado estar en posesión de los mismos.
- Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek zazpi egun balioduneko epea izango dute ondo iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkezteko.
- A partir del día siguiente al de la publicación los/as interesados/as dispondrán de un plazo de siete días hábiles para formular las reclamaciones que consideren oportunas.
- Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta, erreklamaziorik aurkeztu bada, haiek ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du Epaimahaiak.
- Expirado el plazo de reclamaciones y resueltas las que, en su caso, se hubieran presentado, el Tribunal ordenará la publicación de los resultados definitivos.
- 10.6.- Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak dituen plazarik ez da betetzerik izango eskakizuna
- 10.6.- Las plazas que tienen aparejados puestos de trabajo con perfil lingüístico preceptivo no pueden ser provistas por

betetzen duela oinarri hauetan aurreikusitako moduan egiaztatu ez duten izangaiekin.

aspirantes que no hayan acreditado su cumplimiento en la forma prevista en estas bases.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua xedaturikoaren arabera, nahitaez 4. hizkuntza eskakizuna izan behar duten lanpostuetarako hautaketa prozesuetan, izangai bakar batek ere ez badu maila hori egiaztatu, lanpostu horri 3. hizkuntza eskakizuna aplikatuko zaio, betiere deialdi hori betetzeko ondorioetarako bakar-bakarrik.

No obstante, según lo dispuesto en el artículo 43.2 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los procesos de selección de puestos de trabajo con perfil lingüístico 4 preceptivo, caso de no acreditarse éste por ninguno de los/as aspirantes, se aplicará a dicho puesto el perfil lingüístico 3 a los únicos efectos de cobertura en tal convocatoria.

Hamaikagarrena.- Azken kalifikazioak.

Undécima.- Calificaciones finales.

11.1.- Izangai bakoitzak hautaketa prozesuan lortutako azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutako puntuen batura izango da. Era berean, euskararen jakite-mailaren balorazioa ere batu egingo da hizkuntza-eskakizuna lanposturako betekizuna ez baina merezimendua bada.

11.1.- La calificación final obtenida por cada aspirante en el proceso selectivo vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición y en la fase de concurso. También se sumará la valoración de los conocimientos de euskera cuando el perfil lingüístico constituya mérito y no requisito.

11.2.- Lehentasun-klausula.

11.2.- Cláusula de prioridad.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko, 2022ko martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori), trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak % 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategorietan, salbu eta beste izangaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu – eta, nolana ere, ezaugarriok ez dute eragiten sexuarengatik bereizkeriarik–; esate baterako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

De conformidad con lo previsto en el artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en el artículo 20 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres (modificada por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres), en caso de existir igualdad de capacitación, se dará prioridad a las mujeres en aquellos cuerpos, escalas y categorías en las que la representación de las mujeres sea inferior al 40 % salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo.

Ondorio horietarako, izangaiek gaitasun bera dutela joko da hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioan berdinketa gertatzen denean.

A estos efectos, se entenderá que existe igual capacitación entre las personas candidatas cuando se produzca un empate en la calificación final del proceso selectivo.

Plaza bakoitzari dagokion eranskinean zehaztuko da lehentasun-klausula aplikatu behar den ala ez.

En el anexo correspondiente a cada plaza se determinará la aplicación o no de la cláusula de prioridad.

11.3.- Berdinketa hausteko irizpideak.

11.3.- Criterios de desempate.

11.2 oinarrian ezarritakoa alde batera utzi gabe, azken kalifikazioan berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da hurrenkera, hurrenez hurren:

Sin perjuicio de lo establecido en la base 11.2, en caso de empate en la calificación final, el orden de prelación se establecerá atendiendo, sucesivamente, a los siguientes criterios:

1. - Deitutako plazari dagozkion lanpostuetan Donostiako Udalaren zerbitzura denbora gehien eman duen izangaia. Ez da puntuazio-muga kontuan hartuko, eta egunak zenbatuko dira.

1º.- Aspirante que haya prestado más tiempo de servicios en el Ayuntamiento de San Sebastián en puestos de trabajo correspondientes a la plaza convocada. No se tendrá en cuenta el límite de puntuación y se computará por días.

Ondorio horietarako, deitutako plazatzat hartuko dira, baita ere, birsailkatu ondoren deitutako plaza bihurtu direnak (Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariaren ebazpena, 2022ko abenduaren 12koa).

2. - Donostiako Udalaren zerbitzura denbora gehien eman duen izangaia. Egunak zenbatuko dira.

3. - Oposizio faseko ariketan puntuazio handiagoa eskuratu duen izangaia.

4. - Deitutako plazaren berdina edo baliokidea den batean, Donostiako Udala ez den beste administrazio batzuen zerbitzura denbora gehien eman duen izangaia. Ez da puntuazio-muga kontuan hartuko, eta egunak zenbatuko dira.

5. - Zozketa publikoa.

11.4.- Azken kalifikazioak, lehentasun-hurrenkera eta eskaintako lanpostuak argitaratzea.

Kalifikazio Epaimahaiak azken kalifikazioak eta horien ondoriozko lehentasun-hurrenkera zehaztu ondoren, udal-organo eskudunari helaraziko dizkio. Organo horrek, Epaimahaiak helarazitakoari erabat lotuta, ebazpena emango du, eta, horren bidez, azken kalifikazioak biltzen dituzten zerrendak argitaratzeko aginduko du, deitutako plazaren hizkuntza-eskakizunaren arabera. Azken kalifikazioekin batera, lehiaketa-fasean baloratu den izangai bakoitzari dagokion lehentasun-hurrenkera argitaratuko da, bai eta eskaintako lanpostuen zerrenda ere, zerrenda hori aurretik argitaratu bada ere.

11.5.- Lanpostuak hautatzea.

11.4 oinarrian ezartzen den bezala, azken kalifikazioekin batera, eskaintako Lanpostuen Zerrenda argitaratuko da. Lanpostu horien zehaztapenei buruzko informazioa Lanpostuen Zerrendan emango da.

Argitaratzeko agintzen duen ebazpenean ezarriko da azken kalifikazioen zerrendetan ageri diren pertsonen zazpi egun baliouduneko epea izango dutela eskaintako lanpostuak aukeratzeko beren lehentasun-hurrenkera adierazteko. Ebazpen horretan bertan adieraziko da zenbat hautagaik parte hartuko duten lanpostuak aukeratzeko prozesuan, beren lehentasun-hurrenkeraren arabera, eta, hala badagokio, hizkuntza-eskakizunen arabera bereiziko dira.

Lanpostuak hautatzeko, izangaiek libreki adieraziko dute beren lehenespun-hurrenkera, eta azken kalifikazioen arabera ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio.

Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako eskatzen den maila egiaztatu dutenek lanpostu horiek eta nahitaezko hizkuntza-eskakizuna ez duten lanpostuak, biak, eskuragai izango dituzte. Era berean, deialdi berean

A estos efectos tendrán también la consideración de plaza convocada aquellas plazas que tras su reclasificación han derivado en la convocada (Resolución del concejal-delegado de Hacienda y Finanzas, de fecha 12 de diciembre de 2022).

2º.- Aspirante que haya prestado más tiempo de servicios en el Ayuntamiento de San Sebastián. Se computará por días.

3º.- Aspirante que haya obtenido mayor puntuación en el ejercicio de la fase de oposición.

4º.- Aspirante que haya prestado más tiempo de servicios en administraciones diferentes al Ayuntamiento de San Sebastián en una plaza igual o equivalente a la convocada. No se tendrá en cuenta el límite de puntuación y se computará por días.

5º.- Sorteo público.

11.4.- Publicación de calificaciones finales, orden de prelación y puestos ofertados.

Una vez que el Tribunal Calificador haya determinado las calificaciones finales y el orden de prelación derivado de las mismas, las elevará al órgano municipal competente. Dicho órgano, con vinculación plena a lo elevado por el Tribunal, emitirá una resolución mediante la que ordenará la publicación de las relaciones que contengan las calificaciones finales atendiendo al perfil lingüístico de las plazas convocadas. Junto con las calificaciones finales se publicará el orden de prelación que le corresponde a cada aspirante que ha sido valorado en la fase de concurso, así como la relación de puestos ofertados, incluso en el supuesto de que ésta relación ya se hubiese publicado con anterioridad.

11.5.- Elección de puestos de trabajo.

Tal y como establece la base 11.4, junto con las calificaciones finales se publicará la relación de puestos ofertados. Se facilitará información sobre las determinaciones de dichos puestos en la Relación de Puestos de Trabajo.

En la resolución que ordene la publicación se establecerá que las personas que figuran en las listas de las calificaciones finales dispondrán de un plazo de siete días hábiles para manifestar su orden de preferencia respecto a los puestos ofertados. Esa misma resolución señalará el número de aspirantes que en función de su orden de prelación participarán en el proceso de elección de puestos diferenciando, en su caso, por perfiles lingüísticos.

Para la elección de puestos de trabajo las personas aspirantes indicarán su orden de preferencia libremente y se seguirá el orden de prelación establecido en función de las calificaciones finales.

Quienes hayan acreditado el nivel requerido para las plazas que lleven aparejado un puesto con perfil lingüístico preceptivo, optarán tanto a dichos puestos como a los que no tengan dicha condición. Asimismo, cuando en una mis-

lanpostu batzuek baldintza jakin batzuk dituztenean, eskaintako lanpostu guztiei eskatu ezin zaizkienak, baldintza horiek betetzen dituzten izangaiek bi lanpostu mota horiek izango dituzte aukeragarri.

Eskaintako lanpostuei buruzko lehenetasun-hurrenkera garaiz eta behar bezala adierazten ez duenari esleitzeko geratzen den azken lanpostua esleitu zaio, eta, hala bada, lanpostu horren baldintzak bete beharko ditu nahitaez.

Hala ere, lanpostu bakarra eskaintzen den edo lanpostu bereko dotazio batzuk baino eskaintzen ez diren deialditan, alde batera utziko da lanpostuak hautatzeko prozesua, eta azken kalifikazioen ondoriozko lehenetasun-hurrenkerei jarraiki sortuko da hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda, izapide gehiagorik gabe; argitalpenari eta erreklamazioak jartzeari dagokienez, 11.8 oinarria aplikatuko da.

11.6.- Lanpostuak egokitzea.

Desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak egokitzeko eskatu ahal izango dute. Eskaintako lanpostuen artean eskuratu nahi dituztenak, beren lehenetasun-hurrenkerearen arabera adierazita, biltzen dituen dokumentuan egingo dute egokitzeko eskaera, eta, eskaerarekin batera, organo eskudunak emandako txosten bat aurkeztu beharko dute, egokitzapena bidezkoa dela eta izangaiek eskatutako lanpostuen eginkizunak bete ditzaketela egiaztatzen dituen.

Lanpostuak oraindik esleitu gabe egongo direnez, egokitzapena postu baterako baino gehiagorako eskatu ahal izango dute.

Eskaera baloratzeko eskumena duen udal-organoak zerbitzu espezializatuen txosten bat eskatu ahal izango du, eta, hala bada, baita haien laguntza ere. Hautagaiari ere ziurtagiri edo informazio gehigarriak eskatu ahal izango dizkio. Era berean, izangaiari azterketa medikoa egin behar zaiola erabaki ahal izango du, zereginak betetzeko gaitasun funtzionalik ez duela adierazten duten zantzuak baldin badaude.

Lanpostua egokitzearen helburua da desgaitasuna duen pertsonak esleitutako lanpostuaren berezko eginkizunak bete ahal izatea. Nolanahi ere, izangaia esleitutako lanpostuaren berezko eginkizunak bete dezakeen baloratzeko, kontuan hartuko dira lanpostuan egin daitezkeen egokitzapenak.

11.7.- Lanpostuen esleipena.

Lanpostuak, haiek betetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten izangaien artean esleitu dira, hizkuntza-eskakizuna barne dela, nahitaezkoa bada, hautagai bakoitzaren lehenetasun-hurrenkerearen eta haiek adierazitako lehenetasunen arabera.

11.8.- Hautatutako pertsonen zerrenda.

Lanpostuak hautatzeko epea amaitutakoan, behin-behineko zerrenda bat egingo da, hautatutako pertsonak

ma convocatoria algunos puestos tengan determinados requisitos que no sean exigibles a todos los puestos ofertados, los/as aspirantes que cumplan esos requisitos optarán a ambos tipos de puestos.

A quien no manifieste en tiempo y forma el orden de preferencia respecto a los puestos ofertados se le adjudicará el último puesto que quede por adjudicar, para lo que deberá cumplir necesariamente los requisitos de ese puesto.

No obstante, en aquellas convocatorias en las que se oferta un único puesto o se ofertan únicamente varias dotaciones del mismo puesto, se prescindirá del proceso de elección de puestos y el orden de prelación derivado de las calificaciones finales dará lugar, sin más trámites, a la relación provisional de personas seleccionadas; resultando de aplicación la base 11.8 en lo que respecta a la publicación y a la interposición de reclamaciones.

11.6.- Adaptación de puestos de trabajo.

Las personas con discapacidad podrán pedir la adaptación de los puestos de trabajo. La solicitud se realizará en el documento en el que señalen su orden de preferencia respecto a los puestos ofertados, debiendo acompañar a esa solicitud un informe expedido por el órgano competente que acredite la procedencia de la adaptación y la compatibilidad con el desempeño de las funciones que tengan los puestos solicitados.

Al no estar aún adjudicados los puestos la solicitud de adaptación podrá referirse a una pluralidad de puestos.

El órgano municipal competente para valorar la solicitud podrá recabar informe y, en su caso, colaboración de servicios especializados, así como solicitar al aspirante certificados o informaciones adicionales. Asimismo, podrá acordar que el/la aspirante se someta a un reconocimiento médico en los supuestos en los que haya indicios de que carece de la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

La finalidad de la adaptación del puesto es que la persona con discapacidad pueda desarrollar las funciones propias del puesto asignado. En cualquier caso, la compatibilidad para desempeñar las funciones propias del puesto adjudicado se valorará teniendo en cuenta las adaptaciones que puedan realizarse en el mismo.

11.7.- Adjudicación de puestos de trabajo.

La adjudicación de los puestos de trabajo se realizará entre aspirantes que cumplan los requisitos exigidos para su provisión, incluido el perfil lingüístico si fuera preceptivo, atendiendo al orden de prelación de cada aspirante y a las preferencias manifestadas por ellos/as.

11.8.- Lista de personas seleccionadas.

Finalizado el plazo para realizar la elección de puestos se elaborará una relación provisional que contendrá las per-

eta bakoitzari dagokion lanpostua jasoko dituen. Zerrenda hori iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, udal-organo eskudunak emandako ebazpen baten bidez, eta zazpi egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda eta bakoitzari esleitutako lanpostua argitaratuko dira.

Hamabigarrena.- Betekizunak egiaztatzea.

12.1.- Hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek 15 egun balioduneko epea izango dute, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik, hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkezteko. Hona hemen dokumentuok:

1.- Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, pasaporte edo nazionalitatea frogatzen duen beste edozein agiri. Dokumentuak indarrean egon beharko du.

Espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontideak nahiz ezkontidearen ondorengoak izateagatik hautaketa-probetan parte hartu duten izangaiek, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ahaidetasun-lotura egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek emanak, eta lotura hori duen espainiarren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitortpena edo promesa, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazten duena eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela egiaztatzen duena.

2.- Donostiako Udalaren Laneko Osasun Zerbitzuaren ziurtagiri medikoa, eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala duela eta lan hori egitea eragozten dion gaixotasun edo muga fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

3.- Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikoren edo autonomia-erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judicial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, bereizi edo desgaitutako kidegoan edo eskalan sartzeko. Horretaz gain, zinpeko aitortpena edo promesa, ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez dagoela adierazteko.

Espainiako nazionalitatea ez duenak zinpeko adierazpen bat edo promesa bat aurkeztu beharko du, adierazteko ez dagoela desgaituta edo antzeko egoera batean, eta ez duela, bere Estatuan, enplegu publikoan sartzeari eragozten dion diziplina-zehapenik edo baliokiderik.

sonas seleccionadas y el puesto que le corresponde a cada una. Esa relación se hará pública en el tablón de anuncios y en la página web mediante una resolución emitida por el órgano municipal competente y se otorgará un plazo de siete días hábiles para interponer reclamaciones.

Finalizado el plazo de reclamaciones y una vez resueltas las que, en su caso, se hayan interpuesto, se publicará la relación definitiva de personas seleccionadas y el puesto adjudicado a cada una.

Duodécima.- Acreditación de requisitos.

12.1.- Una vez publicada la relación definitiva de las personas seleccionadas, éstas dispondrán de un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación, para presentar la documentación que sirva para acreditar los requisitos de participación en el proceso selectivo, siendo esos documentos los que se enumeran a continuación:

1.- El Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el pasaporte o cualquier documento acreditativo de la nacionalidad. El documento deberá encontrarse en vigor.

En el caso de aspirantes que hayan concurrido a las pruebas selectivas por tratarse de cónyuges, o descendientes del cónyuge, de españoles o nacionales de países miembros de la Unión Europea deberán presentar los documentos expedidos por las autoridades competentes que acrediten el vínculo de parentesco y una declaración jurada o promesa del español o nacional de la Unión Europea con el que existe este vínculo, de que no está separado de derecho de su cónyuge y, en su caso, del hecho de que el aspirante vive a sus expensas o está a su cargo.

2.- Certificado médico del Servicio de Salud Laboral del Ayuntamiento de San Sebastián mediante el que se acredite que se posee la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y que no se padece enfermedad o limitación física o psíquica que impida ese desempeño.

3.- Declaración jurada o promesa de no haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso del cuerpo o escala de funcionario en el que hubiese sido separado o inhabilitado. Asimismo, declaración jurada o promesa de no hallarse incurso en alguna de las causas legales de incapacidad o incompatibilidad.

Quien no tenga la nacionalidad española deberá presentar una declaración jurada o promesa de no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente, ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, el acceso al empleo público.

Baldintza hori egiaztatzeko, pertsonak kudeatzeko esku-
mena duen zuzendaritzak ale normalizatu bat jarriko du
hautatutako pertsonen eskura.

Para la acreditación de este requisito la Dirección compe-
tente en materia de gestión de personas pondrá a disposi-
ción de las personas seleccionadas un ejemplar normaliza-
do.

4.- 1. eranskineko plazak agertzen dituen taulan eskatzen
den titulazioa, lortu nahi den plazara sartzeko behar dena,
edo titulazio hori eskuratzeko tasak ordaindu izanaren
egiaztagiria.

4.- Titulación exigida en la tabla de plazas recogida en el
Anexo 1 para acceder a la plaza a la que se opta en cada
caso, o justificante del abono de las tasas para su expedi-
ción.

Tituluak atzerrian lortu dituzten izangaiek titulu horiek
homologatuta edo baliozkotuta daudela egiaztatzeko agi-
riak aurkeztu beharko dituzte.

Los/as aspirantes con titulaciones obtenidas en el extranje-
ro deberán aportar la documentación acreditativa de su
homologación o convalidación.

3.1.5 oinarriaren azken paragrafoan jasotako kasuan,
lanbide-kualifikazioaren aitortpena egiaztatu beharko da,
araututako lanbideen arloan, Europako Erkidegoko Zu-
zenbideko xedapenen babesean.

En el supuesto recogido en el último párrafo de la base
3.1.5 se deberá acreditar el reconocimiento de la cualifica-
ción profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas,
al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario.

5.- Lortu nahi den plazari dagokion eranskinean eskatzen
diren beste betekizun espezifikiko batzuk egiaztatzea, hala-
korik eskatzen bada.

5.- Acreditación de otros requisitos específicos exigidos, en
su caso, en el anexo referido a la plaza a la que se opta.

12.2.- Donostiako Udalean zerbitzuak eman dituzten
izangaiek beren Espediente Pertsonalean jasota ez dau-
den egiaztagiriak –parte hartzeko betekizunei dagozkien-
ak– baino ez dituzte aurkeztu beharko.

12.2.- Los/as aspirantes que hayan prestado servicios en el
Ayuntamiento de San Sebastián únicamente deberán pre-
sentar los documentos acreditativos de los requisitos de
participación que no consten en su Expediente Personal.

Era berean, ez da beharrezkoa izango betekizun bat egi-
aztatzeke dokumentazioa aurkeztea, baldin eta Donostia-
ko Udalak bitarteko elektronikoen bidez egin baditzake
izangaiei datuei eta dokumentuei buruz egin beharreko
egiaztapenak eta kontsultak, datu eta dokumentu horiek
Administrazioak sortu baditu edo Administrazioaren esku
badaude.

Tampoco será necesario aportar la documentación accredi-
tativa de un requisito en los casos en los que el Ayunta-
miento de San Sebastián pueda realizar por medios elec-
trónicos las comprobaciones y consultas necesarias de los
datos y documentos de las personas aspirantes que hayan
sido elaborados u obren en poder de la Administración.

Betekizunak egiaztatzeke epea irekitzean, Udalak adiera-
ziko du zer datu edo dokumentu jasoko dituen zuzenean,
izangaiek aurkeztu behar izanik gabe. Kontsultak kasu
guztietan egingo dira, interesdunak aurka dagoela adiera-
zi ezean, arrazoiak emanez; kasu horretan, egitea nahi ez
duen kontsultari buruzko dokumentuak aurkeztu beharko
ditu.

El Ayuntamiento indicará al abrir el plazo de acreditación
de requisitos qué datos o documentos serán recabados
directamente, sin necesidad de ser aportados por las per-
sonas seleccionadas. Las consultas se realizarán en todos
los casos salvo que la persona interesada haga constar su
oposición motivada, en cuyo caso deberá aportar los do-
cumentos referidos a la consulta a la que se opone.

Hautatutako pertsonen 12.1 oinarriko dokumentazioa aur-
keztu behar badute eta aurkeztea ezinezkoa bada, izan-
gaiak zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez
egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako betekizu-
nak betetzen dituela.

En aquellos casos en los que deban presentar la documen-
tación de la base 12.1 las personas seleccionadas y resulte
imposible su presentación, el/la aspirante podrá acreditar
que reúne los requisitos exigidos en la convocatoria me-
diante cualquier medio de prueba admitido en derecho.

12.1 oinarrian adierazitako epearen barruan, eta ezinbes-
teko kasuetan izan ezik, izangaiek ez badute egiaztatzen
eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, galdu
egingo dituzte hautaketa-prozesuan parte hartetik erator
daitezkeen eskubide guztiak, eta baliogabetu egingo dira
beren jarduera guztiak; beraz, ezin izango dira izendatu.
Hori guztia, parte hartzeko erantzukizunpeko adierazpena
falsua izan bada, izan dezaketean erantzukizuna gorabe-
hera.

Si dentro del plazo señalado en la base 12.1, y salvo
causas de fuerza mayor, los/as aspirantes no acreditasen
reunir todos los requisitos exigidos, perderán todos los
derechos que pudieran derivarse de su participación en el
proceso selectivo y quedarán anuladas todas sus actu-
aciones, por lo que no podrán ser nombrados/as. Todo ello
sin perjuicio de la responsabilidad en que pudieran haber
incurrido por falsedad en su declaración responsable de
participación.

Baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez bada, hautatu-
takoek karrerako funtzionario izendatu aurretik uko egiten

En este supuesto de falta de acreditación del cumplimiento
de los requisitos, en aquellos casos en los que se produz-

badiote izendapen horri, eta, ezinbesteko arrazoirik izan gabe, karrerako funtzionario izendatu duten hautagaien bat lanpostuaz jabetzen ez bada horretarako ezarritako epearen barruan (13.2 oinarria), udal-organo eskuduna, deitutako plazak beteko direla ziurtatzeko, azken kalifikazioen ondoriozko lehentasun-hurrenkeraren arabera izendatuko ditu hautatutako beste izangai batzuk, deitutakoetatik zirkunstantzia horiengatik bete gabe gelditu diren plazen kopuruaren barruan sar daitezkeenak. 15 egun balioduneko epea emango zaie 12.1 oinarrian zerrendatutako betekizunak egiaztatzeko.

Hamahirugarrena.- Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

13.1.- Parte hartzeko betekizunak egiaztatzeko epea igaro ondoren, edo are lehenago ere, baldin eta hautatutako pertsona guztiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatubadute, hautagaiak karrerako funtzionario izendatuko dira.

13.2.- Donostiako Udaleko alkate-udalburuak izendatuko ditu karrerako funtzionarioak. Izendapen hori, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, osagarri gisa, Udaletxeko iragarki-taulan.

Karrerako funtzionario izendatutakoek Donostiako Udalak adierazitako epean jabetu beharko dute lanpostuaz.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez direnek galdu egingo dituzte Donostiako Udaleko funtzionario izateko deialditik eratorritako eskubide guztiak.

13.3.- Karrerako funtzionario izendatutako pertsonen lanpostua jabetzan hartzeko unean lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatzen badute, libre izango da haiek hutsik utzitako lanpostuak dagokien beste izangaiei esleitzea. Horretarako, azken kalifikazioen ondoriozko lehentasun-hurrenkerara joko da hautatutako beste izangai batzuk izendatzeko, bete gabe gelditu diren deialdiko plazetan sar daitezkeenak. 15 egun balioduneko epea emango zaie 12.1 oinarrian zerrendatutako betekizunak egiaztatzeko.

Hamalauugarrena.- Lan-poltsak.

Oposizio fasea gainditu eta oinarri hauetan araututako hautaketa prozesuen bidez plazarik lortzen ez duten izangaiak Donostiako Udalaren lan-poltsa batzuetan sartuko dira.

Lehiaketa-oposizio bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuetatik sortutako lan-poltsen erregulazioa Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 13an hartutako erabakiaren xedapen iragankorretan dago, «Lan-

can renuncias de los/as seleccionados/as antes de su nombramiento como funcionarios/as de carrera, y en el supuesto de que sin mediar causa de fuerza mayor algún/a aspirante que ha sido nombrado/a funcionario/a de carrera no tome posesión dentro del plazo establecido al efecto (base 13.2), el órgano municipal competente, a fin de asegurar la cobertura de las plazas convocadas, acudirá al orden de prelación resultante de las calificaciones finales para designar otros/as aspirantes seleccionados/as que tuvieran cabida dentro del número de plazas convocadas sin cubrir por las citadas circunstancias, debiendo otorgarles un plazo de 15 días hábiles para acreditar los requisitos enumerados en la base 12.1.

Decimotercera.- Nombramiento y toma de posesión.

13.1.- Transcurrido el plazo para acreditar los requisitos de participación o, incluso, con anterioridad si todas las personas seleccionadas ya han acreditado el cumplimiento de los requisitos, se procederá al nombramiento de los/as aspirantes como funcionarios/as de carrera.

13.2.- El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de San Sebastián efectuará el nombramiento de los/as funcionarios/as de carrera, que será posteriormente publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y, complementariamente, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Quienes hayan sido nombrados/as funcionarios/as de carrera deberán tomar posesión en el plazo señalado por el Ayuntamiento de San Sebastián.

Quienes en el plazo establecido, y salvo causas de fuerza mayor, no tomen posesión perderán todos los derechos derivados de la convocatoria para la adquisición de la condición de personal funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián.

13.3.- Si las personas nombradas funcionarias de carrera solicitan excedencia sin derecho a reserva de puesto en el momento de la toma de posesión, se podrá proceder a adjudicar las plazas que dejen vacantes. A tal efecto se acudirá al orden de prelación resultante de las calificaciones finales para designar otros/as aspirantes seleccionados/as que tuvieran cabida dentro del número de plazas convocadas sin cubrir, debiendo otorgarles un plazo de 15 días hábiles para acreditar los requisitos enumerados en la base 12.1.

Decimocuarta.- Bolsas de trabajo.

Las personas aspirantes que superen la fase de oposición y no obtengan plaza mediante los procesos selectivos regulados en las presentes bases pasarán a formar parte de la respectiva bolsa de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián.

La regulación de las bolsas de trabajo derivadas de los procesos de estabilización de empleo temporal mediante concurso-oposición se encuentra en las disposiciones transitorias incluidas por Acuerdo de la Junta de Gobierno Lo-

poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak» atalean.

cal de fecha 13 de diciembre de 2022 en los “Criterios de constitución y gestión de bolsas de trabajo”.

Hautaketa prozesu horien bidez lan-poltsetan sartzen diren pertsonen lehentasun-ordena oposizio fasean lortutako puntuazioen arabera jarriko da. Berdinketarik izaten bada, zozketa publikoa egingo da berdindutako izangaiek lan-poltsetan izango duten lehentasun ordena erabakitzeko.

El orden de prelación de las personas que se incorporen a las bolsas de trabajo a través de estos procesos selectivos se establecerá en función de las puntuaciones obtenidas en el ejercicio de la fase de oposición. En caso de empate entre ellas se realizará un sorteo público para establecer el orden de prelación que tendrán en la bolsa de trabajo.

Hamabosgarrena.- Egonkortze-prozesuak ez gainditzearen ondorioak. Kargu-uzteak.

Decimoquinta.- Efectos de la no superación de los procesos de estabilización. Ceses.

15.1.- Bitarteko funtzionarioei, jardunean ari direla, Donostiako Udalarekin duten harremana amaitzen bazaie egonkortzeko hautaketa-prozesua ez gainditzeagatik, konpentsazio ekonomiko bat emango zaie: zerbitzuan emandako urte bakoitzeko hogeitaz eguneko ordainsari finkoen baliokidea. Urtebetetik beherako aldiak hilabetea bainanatuko dira, hamabi hilabeteraino, gehienez ere.

15.1.- Al personal funcionario interino que, estando en activo como tal, vea finalizada su relación con el Ayuntamiento de San Sebastián por la no superación del proceso selectivo de estabilización, le corresponderá una compensación económica equivalente a veinte días de retribuciones fijas por año de servicio, prorrateándose por meses los periodos de tiempo inferiores a un año, hasta un máximo de doce mensualidades.

15.2.- Egonkortzeko hautaketa-prozesuan parte ez hartzeak ez du, inolaz ere, konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik emango. Nolanahi ere, honako pertsonak ez dutela deialdian parte hartu joko da: parte hartzeko eskaera onartua izateko behar den epean eta moduan aurkezten ez dutenek (laugarren oinarriko bi faseak egitea), eskaera aurkeztu ondoren parte hartzeari uko egiten dioten pertsonak eta dagoeneko administrazio publikoen esku dagoenaren arabera dauzkaten merezimendu konputagarri guztiak alegatzen ez dituztenek.

15.2.- La no participación en el proceso selectivo de estabilización no dará derecho a compensación económica en ningún caso. Se entenderá, en todo caso, que no han participado en la convocatoria las personas que no presentan solicitud de participación en el plazo y forma necesaria para su admisión (realización de las dos fases de la base cuarta), las personas que tras presentar la solicitud renuncien a su participación, y las que no aleguen la totalidad de los méritos computables que posean de acuerdo con lo que ya conste en poder de las administraciones públicas.

15.3.- Egonkortze-prozesuen ondorioz bitarteko izendapena duten pertsonak kargutik kentzeko ordena Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 13an hartutako Erabakiaren bidez lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideetan ezarritakoa izango da.

15.3.- El orden de cese de las personas con nombramiento de interinidad en los procesos de estabilización será el establecido en los “Criterios de constitución y gestión de bolsas de trabajo” por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 13 de diciembre de 2022.

Hamaseigarrena.- Aurkaratzea.

Decimosexta.- Impugnación.

Interesdunek deialdiak, haien oinarriak eta haren eta Kalifikazio Epaimahaien egintzen ondoriozko egintza administratiboak aurkaratu ditzakete, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako kasuetan eta moduetan.

La convocatoria, sus bases y los actos administrativos que se deriven de aquella y de la actuación de los Tribunales Calificadores se podrán impugnar por las personas interesadas en los casos y en la forma que establecen la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

1 ERANSKINA

PLAZEN TAULA

Plaza izena	Sailkapena	Espezialitatea	Plaza hutsen kopurua	Eranskina	Titulazioa
Arkitektoa	Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: Teknikoa Klasea: Goi mailako Teknikariak	---	2	I	Arkitekturako Goi Mailako Titulazioa edo Arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen titulua
Albaitaria	Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: Teknikoa Klasea: Goi mailako Teknikariak	---	1	II	Albaitaritzako Lizentzia edo Baliokide gradua
Administrazio Orokorreko Teknikaria	Eskala: Administrazio Orokorra Azpieskala: Teknikoa	---	9	III	Merkataritzako Intendente Titulua edo Aktuario Titulua edo Zuzenbideko Lizentzia edo Ekonomia Zientzietako Lizentzia edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia edo Zientzia Politiketako Lizentzia edo Baliokide gradua
Ingurumeneko Goi Mailako Teknikariak	Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: Teknikoa Klasea: Goi mailako Teknikariak	---	1	IV	Goi Mailako Titulazioa (Zientzia Esperimentaletako eta Osasun Zientzietako adarra) edo Goi Mailako Titulazioa (Irakaskuntza Teknikoen adarra) edo Baliokide gradua
Ekonomia ataleko Goi Mailako Teknikaria	Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: Teknikoa Klasea: Goi mailako Teknikariak	---	1	V	Ekonomia Zientzietako Lizentzia edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentzia edo Baliokide gradua
Goi Mailako Teknikaria	Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: Teknikoa Klasea: Goi mailako Teknikariak	Mugikortasuna	1	VI	Lizentzia, Goi Mailako Titulua edo Gradua

ANEXO 1

CUADRO DE PLAZAS

Denominación plaza	Clasificación	Especialidad	Número de vacantes	Anexo	Titulación
Arquitecto/a	Escala: Administración especial Subescala: Técnica. Clase: Técnicos Superiores	---	2	I	Titulación Superior de Arquitectura o Título que habilite para el ejercicio de la profesión regulada de arquitecto/a
Veterinario/a	Escala: Administración especial Subescala: Técnica. Clase: Técnicos Superiores	---	1	II	Licenciatura en Veterinaria o Grado equivalente
Técnico/a de Administración General	Escala: Administración general Subescala: Técnica.	---	9	III	Título de Intendente Mercantil o Título de Actuario o Licenciatura en Derecho o Licenciatura en Ciencias Económicas o Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas o Licenciatura en Ciencias Políticas o Grado equivalente
Técnico/a Superior Medio Ambiente	Escala: Administración especial Subescala: Técnica. Clase: Técnicos Superiores	---	1	IV	Titulación Superior (Rama Ciencias Experimentales y de la Salud) o Titulación Superior (Rama Enseñanzas Técnicas) o Grado equivalente
Técnico/a Superior Rama Económica	Escala: Administración especial Subescala: Técnica. Clase: Técnicos Superiores	---	1	V	Licenciatura en Ciencias Económicas o Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas o Grado equivalente
Técnico/a Superior	Escala: Administración especial Subescala: Técnica. Clase: Técnicos Superiores Teknikariak	Movilidad	1	VI	Licenciatura, Titulación Superior o Grado